

## Jauregi eta euskara

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-06-29: 3.

Ramon Jauregi Atondo euskalduna da, donostiarra, eta bere beste herritar asko bezala, euskara publikoki erabiltzeak politikan abantailaren bat izan zezakeela konturatu denean ohartu gara bere prozesuaz: hasi zen *poliki-poliki*, *pittinka-pittinka* irratian eta telebistan bere euskara agertzen, etxeko saioak gaitzen zihoan neurrian!, *ttaka-ttaka*. Nonbait ere aipatu dut jarduera honek gutxienez inteligentzia bat, edo batzuk!, adierazten dituela: gaia gertu dela hain zaila dela esaten duten hori ikasteko; honen komenientzia politikoaz ohartzeko ere; beste asko ez bezala! Eta, hara, Madrilgo politikaren kopetaraino heldu zaigu. Beharbada bertsioa beste norbaitek ikasiko du orain. Ez dut esaten Ramon Jauregik euskara Madrilera joateko beita gisa erabili duenik, baina lagundu zion, eta abertzale amorratu batzuk irrigarri uzteko behintzat, bai, balio izan du. Apustu egingo nuke. Bestalde, ez dut uste egin duena euskarari dion maitasunagatik egin duenik, hala balitz honezkero ikusiko genuen etorkinen haurrak ikastoletara bidaltzeko kanpainatxo bat egiten, euskarari bultzada polita... Baina ez, euskarari bizia emateko senik ez du PSOEn inork erakutsi, Toribio Etxebarriaz kanpo; ezta usurbildarrak ere!; PPko euskaldunak gutxiago!... Espainolismo sakratua dute balazta!, baina Ramonek politiko abertzale batzuk ebidentzian utziko dituela, seguru.